

Omenaldiak eta ligako lehen finalerdiak, xarea Irurara iritsi zela 100 urte bete direnean

Xare jokorik onena ikusi ahal izan zen larunbatean, Iruran, Ipar Euskal Herriko ligako lehen finalerdiak jokatu baitzituzten bertan; oroigarriak banatzeko eguna izan zen ere // 7



Oroigarri banaketa, pasa den larunbatean. ATARIA

Tolosa CF ilusioz gainezka Valladoliden kontra aritzeko

Ataria Irratiak zuzenean emango du biharko Errege Kopako partida, 18:00etatik aurrera // 7

Liburuaren Astean murgilduko dira bihartik aurrera

Kirol Astea atzean utzita, bestelako ekitaldiak izango dituzte aste honetan zizurkildarrek // 2



BERTSOLARI TXAPELKETA AMASARRA BOSGARREN

Beñat Gaztelumendik irabazi du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, bigarren jarraian, Agin Labururi buruz burukoan gailendu ostean; «bertsoarekin goatzeko ahalmena berreskuratuta» Oihana Iguaran bosgarren izan da // 3

ZUZENEAN

Tolosa CF
Vs
Valladolid

Abenduaren 18,
asteazkena 17:45etik
aurrera, kopako partida
Ataria Irratian.



ataria 107.6 fm
irratia www.ataria.eus

*Egin zure erosketak Ibarrran
abenduaren 9tik urtarrilaren 3ra*
Sariak:



Zozketa eguna: Urtarrilak 3, 20:00etan.



*Sariak ez dira inoiz eskudirutan emango

Kultura aniztasuna jorratuko dute Liburuaren Astean

Zizurkilen ipuin kontaketa saioak egingo dituzte Mexiko eta Nigeriako elkarteetako ordezkariak, eta bihar, 'Hasiera berri bat' liburua aurkeztuko dute

Jon Miranda Zizurkil

Kirol Astea ospatu zuten aurrekoan Zizurkilen eta bihartik aurrera Liburuaren Astean murgilduko dira. Iker Urruzola alkateak na-

barmendu duenez, «kirola eta liburu artean ibiltzea bateragarria dela azpimarratu nahi dugu».

Urtero gai baten inguruan antolatzen dituzte Liburuaren Aste-ko ekitaldiak eta Arantxa Zabala

Plazida Otañoko liburuzainak aipatu du, aurten, «kultura aniztasuna» izango dutela ardatz nagusia. Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna izan zen joan den astean, eta bihar, Migratzaileen

Niangek *Hasiera berri bat* liburuan. Horretarako prest dagoenak bihar izango du aukera Zizurkilgo Liburuaren Astean, eta gaur, Olentzerotan Jakin-Minez jardunaldiaren barruan, Altzon, Batzarremuño kulturgunean, 19:00etan. Niangekin batera ariko da Mikel Garcia Idiakez (Irun, 1980), liburua osatzen lagundu duen kazetaria.

Zein izan da zure lana liburu hau osatzerako orduan?

Galdetzaile, entzule eta notario lanak egin ditut. Pape Niang eta biak, Bilboko SOS Arrazakeriaren egoitzan biltzen ginen ostiralero eta bere bizitza kontatzen zidan. Tartean nik ere galderak egiten nituen eta gauza ugari eztabaizatzen genuen, migrazioarekin lotutako gaiez alde batetik, baina baita bizitzako beste hainbat gauzez ere. Gogoeta horiek dira nik liburuan jaso ditudanak. Solasaldi horietatik ateratako guztiari forma ematea izan da nire egitekoa.

Nola izan zenuen zuk Pape Niangen ezaguera?

Nik Argia aldizkarian egiten dut lan. Liburua *Inor ez da ilegala* proiektuaren barruan kokatzen da. 2018ko apirilean Bilbora joan nintzen erreportaje bat egitera. Bilboko kale saltzaile senegaldarrak bizi duten egoerari buruzko artikulua atera nahi genuen. Saltzaile horiek Mbolo elkarte dute eta erreportaje bat izan behar zuten elkarlan oparo baten abiapuntu bihurtu zen. Orduan sortu genuen *Inor ez da ilegala* proiektua eta mezu hori zabaltzearekin batera, Mbolo elkarte eta Argia bera indartzeko ekimen bihurtu dugu. Saltzaile senegaldarren elkarte lehendakaria da Pape eta orduan ezagutu genuen bera eta baita bere istorioa ere. Erabaki genuen, bai ala bai, liburu batera ekarri behar genituela bere bizi-penak.

Migratzaile adina migrazioa esperientzia dago. Ordezkatzen du Niangen esperientziak beste migratzaileena?

Bai. Migrazio prozesuen atzean badaude ezaugarri komun batzuk, beti dago zure sorterritik ateratzeko behar bat, zerbaitek bultzatzen zaitu hori egitera. Gero badago bidaia gogor bat, Pape-aren kasuan lehenengo Afrika zeharkatzera eta gero penintsulara iritsi ahal izateko Mediterraneoa gurutzatzera behartzen duena.

LIBURUAREN ASTEA 2019

Gaur, abenduak 17

17:30. Herriguneko Iriarte kultur etxean Mestiza Mexikoko elkarte artistiko eta sozio-kulturalak ipuin kontaketa egingo du, euskaraz, gaztaniaz eta ingelesez.

Bihar, abenduak 18

19:00. *Hasiera berri bat* liburua aurkeztuko dute Pape Niang eta Mikel Garcia Idiakez Plazida Otaño liburutegian.

Abenduak 19, osteguna

17:30. Divinas Nigeriako emakumeek osatutako elkarte kideek ipuina kontatuko dute Plazida Otaño liburutegian. Euskaraz, gaztelaniaz eta Igbo hizkuntzan eskainiko dira.

Abenduak 20, ostirala


17:30. Teodoro Hernandorena ipuin lehiaketako eta Booktrailer lehiaketako sari banaketa ekitaldia Plazida Otaño.

Nazioarteko Eguna denez, bi data horiei egin nahi izan diete erreferentzia aste honetan.

SOS Arrazakeria elkarteak, ostirala bitartean, *Gureak ere badi-ra adingabe horiek* izeneko erakusketa jarriko du Plazida Otaño liburutegiko erakusketa gelan. Eta Mexikoko Mestizas elkarte eta Nigeriako emakumeek osatzen duten Divinas elkarte ki-

deek ipuinak kontatuko dituzte, gaur eta etzi.

Bihar Pape Niang senegaldarraren bizipenak biltzen dituen *Hasiera berri bat* liburua aurkeztuko dute Niangek berak eta Mikel Garcia Idiakez kazetariak. Eta ostiralean amaituko dute astea, Teodoro Hernandorena eta Booktrailer lehiaketan sari banaketa ekitaldiarekin.



«Ez da bakarrik bidaia fisiko bat, barne bidaia bat ere kontatzen du liburuak»

MIKEL GARCIA IDIAKEZ
KAZETARIA

J.M.

Migratzaileen ahotsa entzun dadin entzuteko prest dagoen jendea behar dela aipatzen du Pape



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintzak

Zerbitzaria. Tolosako sagardotegi batean, txotx denboraldirako, langilea behar da zerbitzari eta sukaldari lanak egiteko. Interesa dutenek dei dezatela 660 65 43 17 telefono zenbakira.

Ileapaintzailea. Tolosako Irtika ileapaindegia esperientziadun ileapaintzailea behar du, arratsaldetan lan egiteko, lanaldi erdian. Interesa-

tuek deitu 943 50 84 93 telefono zenbakira.

Etxebizitza

Pisukide bila. Iruran, bi pertsonentzako etxebizitza, gela bat alokatzen dut. Argitsua, berria eta altzariekin. Pertsona ez erretzailea eta arduratsua izatea beharrezkoa. 350 euro + gastuak, erdibana. Harremaketarako 606 011 526.

Iguaranek bosgarren egin du

Beñat Gaztelumendik irabazi du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, bigarren jarraian, aurtengoan buruz-burukoan Agin Labururi irabazita

«Bertsoarekin gozatzeko ahalmena berreskuratzeko balio izan dit»

Imanol Artola 'Felix'

6.000 lagun bildu ziren Illunben. Tolosaldeetik lau autobus antolatu zituen (H)arituze eta giro aparta bizi izan zen Donostian. Agurretatik ikusi zen jendeak bertsolariak animatzeko izan zuen jarrera. Iguaranek ere mugak gainditzera joan zela adierazi zuen lehen agurretik: «*kaixo arratsaldeon/zaletu nahiz peto/ez dakart gauza handirik/irakasteko/baina bertsoa bide/denez ikasteko/esan nahi nuken hori/det irabazteko/ze gogo has-teko/eta jolasteko/baztarrak nahasteko/koska bat hazteko/gaur egun ederra/mugak hausteko*».

HASIERATIK MAILA ONEAN

Zortziko nagusian Beñat Lizasorekin kantatu zuen amasarrak. *Bikotea dira. Dirurik ez eskiatzera joateko eta Lizasok gurasoei eskatu nahi die dirua, Iguaranek ez. Lizasok lehen bertsoa «zer pasa beharko degu/inbidia edo lotsa?» galdetuz amaitu zuen eta amasarrak bigarren oinean forfite errima egoki erabiliz «hobe murriztu aurrekontua/astindu aurretik aita/edo fondoko eskia egin/askoz merkegoa baita» amaitu zuen lehen bertsoa. Bertsoaldi txukuna osatu zuten biek. Amasarrak bigarren puntuazio altuena lortu zuen ariketa horretan, Elustondoren atzetik.*

Zortziko txikian Labakarekin Egunean behin aplikazioari buruzko gaia tokatu zitzaion. *Labakak hamar galderak asmatzen ditu egunero eta Iguaran gaizki pentsatzen hasia da. «Zuk beti hamar eta/segundutan entzun/ja uste det galderak/idazten dituzun»* esanaz hasi zen amasarra. Labakak «*gaur hala eduki det/hobe aurkeztea/goizez final bat eta/atsaldez bestea*» eran-



Zortzi finalistak, larunbatean, sari banaketaren ostean. JOSU ARTUTXA

tzun zion, goizean izan baitzen Egunean behineko finala, Azpeitian. Labakak egiten duena ezinezkoa dela esanaz jarraitu zuen amasarrak eta «*hogei milagarren ni/hirugarrena zu/sorteo ederki/joaten bazaizu/Getari(a)ra zurekin/eraman nazazu*» amaitu zuen bertsoaldia Iguanarek. Bosgarren puntuazio altuena izan zuen amasarrak eta postu horretan zen ariketa amaieran.

Puntu erantzunetan bigarren bertsoak alde egin zion amasarrari, postala gaitzat zuela. Lehen bertsoari bikain erantzun zion halere: «*jasotzen genituen/eskuz idatzita/ta lagunek egiten/ziguten bisita/e-maila azkarra-go/heltzen da kasik ta/gauza aspaldi dago/aldatzen hasita*». Puntuazio baxuena lortu zuen ariketa horretan eta seigarren postuan zen behin behineko sailkapenean.

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Orduan etorri zen amasarraren bertsoaldi onena, hamarreko txikian. *Beñat Gaztelumendi eta biak pailazoak dira eta aretoa beteta dagoela ikusten dute teloi atzetik. Pirritx eta Porrotxen pa-peretik arratsaldeko bertsoaldi*

gogoangarrienetako bat utzi zuten biek. «*Pixkanaka doaz sartzen/ume eta heldu/denen ilusioa/suma dezakegu/emanaldi onena/eskainiko degu/jendeari eskerrak/indartsu gaude gu/Udalak hustu zuna/herriak bete du*» kantatu zuen Iguaranek eta «*Anaitasuna bete/degua hola hola/lehenengo filan haur bat/baba dariola/hango musugorria/ta horko potxola/nahiz ta aulkitan ez den/ikusten inola/ziur Enrike Maia/begira dagola*» jarraitu zuen Gaztelumendik. Iguaranek «*eta gure hizkuntza/nahi luke gordea/ea kutsatzen zaion/gure kolorea*» amaitu zuen bigarren bertsoa eta Gaztelumendik berriz «*euskalduna haintzat/beti ertzekoa/haien mundua baita/zuri beltzekoa*». Azken bertsoa ere borobila kantatu zuen amasarrak: «*marrazkiak bidali/genitun aurrena/ea pixkat argitzen/zaion barrena/ez det nire gain hartzen/Maiaren herrena/zuk begira jendeak/ze poz dakarrena/haurren irri-parra da/mendeku ederrena*». Gaztelumendik honela borobildu zuen ofizioa: «*OPUSi ohi diote/erraz obeditu/ta sudur gorri batek/ikaratzen ditu*».

Bertsokideek ere amaitu egin

zuten hamarreko txikian, eta saioak gora egin zuen. Laugarren puntuazio altuena lortuta, postu bat egin zuen gora behin behineko sailkapenean amasarrak.

MAROKOAR BIKOTEA

Bakarkakoan «*bikotekide atzerritarra duzu. Oporrak dituzuen aldiro, haren familia bisitatzen joan behar izaten duzue*» gaiari ertzak aurkitu zizkion. Lehen bertsoan, marokoar bikotearekin egindako tratua hitz egin zuen: «*bien munduak konpartitzea/delako elkarbizitza/ta etortzea nahiko nuke nik/kontua aldrebes balitza*» amaituz. Bigarrena, berriz «*ez det eskatzen bertan baimenik/ta noski ez barkamenik/ta ez det uste bi herrirena/hain aukera txarra denik*». Hirugarren bertsoa honela borobildu zuen: «*bi ume txiki dauzkagunetik/nahiz logistika den muga/sekula ez da gudan gailendu/hara joateko duda/pentsatu hango aiton-amonak/zai dauzkagula gustura/eta umeak iristen dira/aita hazi zen lekura/gurean gisan jasoko dute/hizkuntza eta kultura/bikotearen herria zena/lauron etxe bihurtu da*».

Laugarren puntuazio altuena lortu zuen berrirori, eta bosgarren postua eskuratu zuen behin betiko sailkapenean amasarrak.

BURUZ BURUKOA

Buruz burukora Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendi iritsi ziren. Laburuk Alaia Martinek baino puntu bat gehiago aski izan zuen buruz burukora heltzeko. Sei puntuko motzean eta puntutan astigartarra nagusitu zitzaion Gaztelumendiri, baina kartzelako lanean, Gaztelumendi izan zen nagusi eta Xabier bere aitak, semeari txapela janzteko ohorea izan zuen.

Imanol Artola 'Felix'

Amasa-Villabona

Finalaurrekoan baino gehiago gozatzea eta ariketa batzuetan behintzat eskaini nahi zuen hori eskaintzea lortu zuela finalean azaldu du Oihana Iguaranek.

Jolastera joan zinela aipatu zenuen agurrean. Jolastu al zenuen?

Nere burua etengabe ahalegin horretan sumatu nuen, eta horrelakoetan gozatu egiten dut.

Arantzak ateratzeko balio izan al dizu finalak?

Bertsoarekin gozatzeko ahalmena berreskuratzeko behintzat bai. Euskal Herriko Txapelketa bukatzean eta Tolosakoa bezalako tentsiodun saio batean batzuetan iluntasun batean sartzen gara, eta gozatzeko ahalmena galtzen duzu. Nik ez dut bertsoa horrela bizi nahi. Horregatik, esaterako, udan etenaldi txiki bat egin, eta distantzia pixka bat hartu nuen.

Mugaren bat hautsi al zenuen?

Ez nuen nahi beste lortu. Baina, nere buruarekin asteotan sentitutako muga batzuk behintzat atzean utzi nituen, eta hori ere distantziatik baloratzen jakin behar da.

Beñat Gaztelumendiren mailaren eta besteenaren artean koskaren bat atzeman al zenuen?

Aldiro txunditzen nauen dohaina du. Espero genuen, baina, hala ere, asko poztu nintzen bikaintasun horretan ere printza batzuk atera zituelako. Batez ere, bakarka eta puntuetan nabari zen koska.

Inurri lana azpimarratu nahi izan zenuen bukaerako agurrean.

Aurtengo finaleko argazkia urte askotan egindako lanaren ondorio dela iruditzen zait, eta horri bere lekua ematea garrantzitsua iruditzen zitzaidan.

Argazki parekidea.

Finala polita izan zen, eta ez soilik lau emakume eta lau gizon ginelako. Horri garrantzia kentzen diot bere horretan, askoz harago doan lanketa batean gaudelako. Baina, aldi berean, bertso eskolako hurrei begira, jakitun naiz horrek eragin handia duela beraiengan.

Ataria Bertso Jaialdia urtarrilaren 18an

Erredakzioa Tolosa

Bertso gosez geratu direnek urteroko Ataria Bertso Jaialdian izango dute asetzeko aukera ederra. Urtarrilaren 18an izango da eta honako seikotea izango da Tolosako Leidor aretoko ohol-

tzan: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Oihana Iguaran, Andoni Egaña, Alaia Martin eta Julio Soto. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Amaia Agirre ariko da.

Bada, Atarikideek dagoeneko jaialdirako sarrerak erosteko aukera dute, TOLOSALDEKO ATARIA-

ren egoitzan (San Esteban, 20. Tolosa). Abenduak 18an eta 20an, goizez erosi ahalko dira, 09:00etatik 13:00etara, eta abenduaren 17an eta 19an, arratsaldez, 15:00etatik 19:00etara.

Atarikide ez direnek urtarrilera arte itxaron beharko dute

jaialdirako sarrerak erosi ahal izateko. Atarikideek 10 euroan bi sarrera erosi ahalko dituzte, eta bi baino gehiago erosi nahi dituztenek 12 euro ordaindu beharko dute. Pertsona bakoitzak hamar sarrerako erosi ahalko ditu gehienez.

Mendizabal jo zuen ertzainaren zigorra murriztu dute

Erredakzioa Anoeta

Amalur Mendizabal Amaiurreko senatari ohia jotzeagatik, bi urteko zigorra ezarri zioten poliziari. Auzitegi Gorenak zigorra murriztea erabaki du orain.

2013ko irailaren 30ean gertatu zen, Herrera-ren aurkako operazioan. Amaiurreko senataria zen orduan Mendizabal. Guardia Zibila elkartearen Hernaniko egoitzara sartu zen, eta Ertzaintzak hartu zituen inguruak. Jende ugari bildu zen protestara, eta Ertzaintzak indarrez sakabanatu zituen. Emakume bat babesten ari zen Mendizabal eta senatari

txartela ateratzen, ertzain batek buruan jo zuenean. Bost zentimetroko ebakia egin zioten, eta zortzi puntu eman zizkioten.

Mendizabalek salaketa aurkeztu eta bost urtera heldu zen lehen ebazpena, iazko otsailean. Bertan ontzat eman zuen epaileak fiskaltzaren eta akusazio partikularrek egindako bi urteko zigor eskaera, eta horretaz gain, bi urtean brigada mugikorrean aritzeko debekua ere ezarri zioten ertzainari. Jaurlaritzak esan zuen «neurrigabea» zela zigorra.

Bada, orain, Espainiako Auzitegi Gorenak ebatzi du zigorra sei hilabetera murriztea.

«Hirugarren Munduko osasun zerbitzua daukagu»

Tolosako kultur etxea txiki geratu zen larunbatean, TOPAren batzarra entzuteko; bi txostenen inguruan aritu zen koordinakundea

Erredakzioa Tolosa

Tolosalde Osasun Publikoaren alde koordinakundeak informazio batzarra antolatua zuen joan den larunbaterako, eta herritarrek erantzun zioten deialdiari. Tolosako kultur etxeko areto nagusia beteta, Osasun Sailaren «zorraz» eta mediku espezialisten homologazioari buruz osatu berri duten ikerlanaz aritu ziren TOPAko kideak.

Hasiera batean, lehendik ere ezaguna zen txostenaren inguruan hitz egin zuten: Osasun Sailak Tolosaldearekiko duen zorraz. TOPAko kideek azaldu dutenez, azken 35 urteak kontuan hartuta, zorra 201 milioi eurokoa da. Azken 8 urteotako datuak aztertuz, berriz, zorra 96 milioi euro gutxiago bideratzen dira Tolosaldeko herritarrengana, TOPAko kideen esanetan. «Honek herritarrek jasotzen duten zerbitzuan eta zerbitzu hori eman behar duten langileengan zuzeneko eragina dauka».

Datuak plazaratu eta gero, TOPA koordinakundeak ohartarazi du datuok ez direla eurenak, Asuncion klinikarenak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarenak, baizik; bi erakundeak jo zituzten egoeraren arduradun.

«HOMOLOGAZIORIK EZ»

Eskualdeko udal guztiei aurkeztu diete, larunbatean Tolosako kultur etxean plazaratu zuten bi-



Tolosako kultur etxean izan zen informazio batzarra. ASIERIMAZ

garren txostena. Bihar, berriz, Eusko Jaurlaritzara helaraziko dute dokumentua.

Txosten horretan, Asuncion klinikan homologaziorik gabe ari diren mediku espezialistak dituzte hizpide, eta baita medikuen mugikortasuna ere. «Espezialistak falta dira, eta egon direnak joaten ari dira. Azken bi urteetan, bederatzi traumatologo egon dira». Adibide zehatzak ere eman zituzten, gaixo batek urtean lau mediku desberdin nola izan dituen kontatuz. «Montoia jauna negozioa egitera etorri da,

eta murrizketekin eskua joan zaio. Jendea alde egiten ari zaio».

Era berean, mediku orokorrak espezialista lanetan ari direla ere salatu nahi izan zuen TOPAko: «Medikuen Eskolarekin ere hitz egin dugu, eta Asuncionen gertatzen ari denarekin eurak ere kezkatu daudela esan digute».

Informazio hori guztia baloratuz, TOPAren ustez Tolosaldeko herritarrek «Hirugarren Munduko zerbitzua jasotzen» ari dira, eta gainerako eskualdeekin orekatzea eskatu dute, beste behin.



LARRIKI GAIXO DAUDENEN ALDE

Sarek informazioa banatu zuen asteburuan, Tolosan eta Anoetan, larriki gaixo dauden presoek egoeraren berri emanez. Tolosan argazkia ere atera zuten eta abenduaren 24an Tolosan egingo duten manifestaziorako deialdia egin zuten; 18:45ean irtengo da Trianguloatik. Anoetan larriki gaixo dauden 21 euskal preso daudela gogoratu zuten eta ezohikoa den espetxe politika bati aurre egin behar diotela nabarmendu zuten. I.G.L.

RAFA GORROTXATEGIEN ARTISAU TURROIAK

RAFA GORROTXATEGI
1680

Tolosan salgai:
Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Rafa Gorrotxategi
Denda:
Solana Kalea, 7

943 89 03 06 | www.rafagorrotxategi.eus

Galtzacomikek baditu irabazleak

Desagertze arriskuan dauden munduko hizkuntzak hartu dituzte ardatz, komiki lanak osatzeko; hamabigarren Galtzacomik izan da



XII. Ibarra Galtzacomik lehiaketako irabazleen talde argazkia. A. IMAZ

Erredakzioa Ibarra

Galtzaundi Euskara Taldeak Ibarako Udalarekin elkarlanean antolatzen duen Ibarra Galtzacomik komiki lehiaketak baditu irabazleak. 2019. urtea Hizkuntza Indigenen Nazioarteko urtea dela kontuan hartuz, aurtengo sariketa desagertzeko arriskuan dauden munduko jatorrizko hizkuntzen aldarrikapena egiteko baliatu dute.

Lanak bidaltzeko epea azaroaren 25era bitarte irekita egon eta gero, epaimahaiak joan den astean baloratu zituen jasotako lan guztiak.

Aurten honako hauek osatu dute epaimahaiak: Joseba Antxustegietxarte komikilariak, Iñigo Martiarena *Martin* marrazkilariak eta Martxe Arana margolariak.

Sari banaketa ekitaldia joan den ostiralean ospatu zuten, Ibarako kultur etxean, eta May Gorostiaga antzezlearen ardura izan zen ekitaldia umorez giro-

tzea. Parte hartzaile guztien artean Mahalako bi saski zozkatu zituzten eta irabazleak Naroa Irazusta Iturrioz eta Nora Martinez izan ziren.

Jasotako trofeo eta ordainsariek batera, aipatzekoa da ere saridun guztiak Xabiroi aldiz-

karira harpidetuko direla urtebetez. Bide horretan, Galtzaundik eskerrak eman zizkien Galtzacomik babesten duten Xabiroi aldizkariari, Tamayo dendari, Mahalari, Ibarako merkatariaren elkarteari eta Dannon Txokoa tabernari.

SARIDUNAK

12 urtetik behera

1. saria. *Hizkuntza bizitza da*, Paula Ansorena Irizar.

2. saria. *Atlasa*, Aitor Aristi Imaz.

Aipamenak.

Erakutsi zure hizkuntza galtzea ez baduzu nahi, Iزار Etxegoien Lazkano.

Nondik dator euskara, Irati Larreta Perez.

Lore magikoa eta indigenak, Mirari Saralegi.

Elkano eta indigena amerikarrak, Denis Ariznabarreta.

Zaindu zure hizkuntza, Nora Anso-renalirizar.

Ibarako onena. *Galtzagorri*, Amets Mendizabal Azpeitia.

13-16 urte

1. saria. *Kin yaantal ichil ta*, Nahia Ansorena Irizar.

2. saria. *Azkena*, Satya Apeztegia Jauregi.

Aipamenak.

Hizkuntzen liburuak, Leire Goikoe-txea Zabala.

Lunba taldea, Maria Jameton Mendez.

Ibarako onena. *Mateoren aurkezpena*, Irati Urdanoz Mujika.

17 urtetik gora

1. saria. *Youthanasia*, Javier Navarro Araya.

2. saria. *Bankoa*, Aitor Urkiola Badiola.



GIPUZKOAKO ENPRESA ONENA

Bidegainek asmatu du garai berrietara egokitzen, eta Artzabaltzako lantegiko taldeak jaso du 2019ko enpresa gipuzkoar onenaren saria, Confebasken eskutik. Joan den ostiralean bertan izan ziren Olatz Peon Tolosako alkatea eta Iñaki Pakea Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuko zuzendaria. Izan ere, saria jaso izanaren arrazoi nagusienetakoa Bidegainek lanbide heziketarekin eraiki duen zubia da. Prestatutako langileak erakartzeko zailtasunak zirela eta, joan-etorriko harreman egitasmoa martxan jarri zuten iaz. ATARIA



AZOKA, WUKRORA BEGIRA

Urteroko moduan, berastegiarrek elkartasun izpiz amaituko dute urtea. Joan den larunbatean egin zuten elkartasun azoka, Etiopiako Wukro lurraldeari laguntzeko asmoz. Azokan, besteak beste, jostailuak eta liburuak izan ziren eskuragarri, eta, guztira, 445 euro bildu zituzten antolatzaileek. Horri, ordea, kultur asteko azokan bildutakoa ere gehitu behar zaio, hango irabaziak ere Etiopiar bidean jarriko baitituzte berastegiarrek. Horrela, guztira 1.086,50 euro bidaliko dituzte. ATARIA

Gabonetako azoka berezia

Abenduak 21
Trianguloa Plaza,
Alondgia Plaza
eta Plaza Zaharra



Miren Larrartek ezin izan du txapela jantzi

Emakume Master Cup txapelketako finala 22-11 galdu du bidaniarrak Miriam Arrillagaren aurka

Imanol Garcia Landa

Miren Larrarte bidaniarrak ezin izan du jantzi lau eta Erdiko Laboral Kutxa Emakume Master Cup-eko txapela. Finalean 22-11 galdu zuen Miriam Arrillagaren aurka, baina partida markagailuak erakusten duena baino parekatuagoa izan zela azaldu du Larrartek: «Hasiera batean nahiko parekatu hasi ginen. Baina bera gero eta indartsuago jotzen hasi zen, eta indarrean alde asko zegoen, eta ezin izan nuen gehiago eutsi».

Aurkariak pilotari ematen zion abiadura eta sakea izan zirela partidaren bi gakoak gaineratu du bidaniarrak: «Sake asko ez nituen altxa, eta jokoan indarrez gehiago zen, eta ezin izan nuen partida irabazi». Sei bat tanto egin zizkion sakez Arrillagak, eta Larrartek bakarra lortu zuen: «Ez zen izan nik ondo sakatu nuela-



Miren Larrarte eta Miriam Arrillaga, finalaren ondoren. ATARIA

ko. Pixka bat baztertu nuen, baina berak ez zion eutsi».

SENTSAZIO ONA

Pilotari bidaniarrak bazekien finala zaila izango zela: «Hasieran sentazio nahiko ona izan nuen eta tarteak erakutsi nuen nire teknika, beraz, orokorrean nahiko sentazio onak izan nituen». Eskuetatik gaizki bukatu zuen finalerdia, baina finalean uste baino hobeto izan zituen: «Ezkerre-

an zuloa egin nuen eta txartela jarri nuen. Pilota pixka bat sartzen zitzaidan, baina min handirik ez nuen izan».

Txapelketa osoari begiratuta, «nahiko ondo» ikusi du bere burua Larrartek. Finalerdian Laia Salsamendi ren aurka «nahiko deseroso» sentitu zen, eta eskuekin ez bada oso ondo egon ere, orokorrean «gustura» dago egindako txapelketarekin. Pilota mistoaren modalitatean jokatu da lehen aldiz Emakume Master Cup txapelketa, eta jokamolde horretan parte hartu du Larrartek. Hurrengo urtean ere pilota mistoarekin parte hartzeko asmoa azaldu du: «Seguru pilota mistoarekin berriro antolatuko dutela, eta eskuak ondo baditut, parte hartuko dut».

Barakaldoko frontoian jokatu zituzten Emakume Master Cup-eko finalak, eta guztiz bete egin zen pilotalekua. «Giro oso ona egon zen, beteta zegoen, eta eskertzekoa da», esan du pilotari bidaniarrak.



Iñaki Artola alegiarra, atzo, Beotibar pilotalekuan jokatuako partidaren. I.G.L.

Jaka eta Artola, lehen postuetan galdu arren

Altuna III.ak Galartzarekin batera bi partida jarraian irabazi ditu binakakoan

Erredakzioa

Binakako Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu da asteburuan, laugarrena, eta Jaka eta Artola lehen bi postuetan mantentzen dira euren partidak galdu arren. Bere aldetik, Altuna III.ak bigarren partida irabazi du jarraian eta bosgarren postuan kokatu da.

Jaka lizartzarrek, Zabaletarekin batera, lehen partida galdu du txapelketan. Hori bai, markagailu estuenarekin, Laso eta Albisuren aurka 21-22 galdu baitzuten. Altuna III.a amezketarrak eta Galartzak 14-22 irabazi zuten Olaizola II.a eta Aretxabaletaren aurka.

Artolak eta Imazek Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu zu-

SAILKAPENA

Jaka-Zabaleta	3-1
Artola-Imaz	3-1
Ezkurdia-Martija	2-2
Laso-Albisu	2-2
Altuna III-Galartza	2-2
Iribarria-Rezusta	2-2
Olaizola II-Urrutikoetxea	1-3
Bengoetxea VI-Aretxabaleta	1-3

ten atzo euren neurketa, Iribarria eta Rezustaren aurka. Partida borrokatua izan zen, eta alegiarra eta Imaz aurretik izan ziren zenbait unetan, baina partidaren azken txanpan hobeto aritu ziren aurkariak eta 22-16 irabazi zuten.

Hurrengo jardunaldia, bosgarrena, ostiralean hasi eta asteazkenean amaituko da. Hilaren 20an, Irunen, Erik Jaka lizartzarrek jokatu du; Zabaleta lagun duela, aurkariak Olaizola II-Urrutikoetxea izango ditu. Iñaki Artola alegiarrak eta Ander Imazek igandean jokatu dute Arrasaten, Ezkurdia-Martijaren aurka. Hilaren 25ean, azkenik, Eibarren, Jokin Altuna amezketarra eta Ladis Galartza izango dira, Laso-Albisuren aurka.

PROMOZIO MAILAKOA

Laugarren jardunaldia jokatu zen asteburuan ere, osorik, promozio mailakoan. Eskualdeko ordezkari bakarra Beñat Urretabizkaia ikaztegiatarra izan zen. Arteagarekin jokatu zuen eta 22-16 galdu zuten, Elordi-Etxebarriaren aurka. Hurrengo jardunaldian Irunen jokatu dute, ostiralean, Zabala-Ruizen aurka.

Ataria bertso jaialdia 2020

Amaia Agirre
Gai jartzailea

Maialen Lujanbio Amets Arzallus Oihana Iguaran Alaia Martin Julio Soto Andoni Egaña

SARRERAK ATARIKIDEENTZAT: 10€

Atariaren bulegoan erosi zure sarrera:
Abenduak 16, 18 eta 20an: 09:00 - 13:00
Abenduak 17 eta 19an: 15:00 - 19:00

Helbidea: San Esteban, 20, Tolosa.
Oharra: Atarikideek 10€tan 2 sarrera erosi ditzakete eta hortik aurrera 12€tan, gehienez 10 sarrera. Atarikide ez direnentzat berri, sarrerak urtarilean jarriko dira salgai.

Urtarrilak 18, larunbata arratsaldeko 18:00etan.
Tolosako Leidor antzokian

zozketak

Atarikideentzat bi sarrera ditugu

DELTECO GIPUZKOA BASKET - HLA ALICANTE
partida ikusteko

Abenduak 29, 18:00etan,
Donostia Arena.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 13:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

«Ilusioan ez gaituzte irabaziko»



Tolosa CF-ko kideek prentsaurrekoa egin zuten partidaren inguruan. I.G.L.

Tolosa CF-k Errege Kopako partida jokatu du bihar, Valladoliden aurka

I. Garcia Landa Tolosa

Errege Kopako partida historikoa jokatu du Tolosa CF-k Valladoliden aurka bihar, Berazubi futbol zelaian 18:00etatik aurrera. 1.700 pertsona inguru elkartzeko espero dute estadioan, eta dagoeneko 1.300 sarrera inguru salduta daude. Iurre tabernan eta Shanti Kirolak dendan erosi daitezke, eta partida hasi aurretik Berazubini bertan. Mikel Arruabarrena kirol zuzendariak prentsa agerraldian azaldu zuenez, «lanketa gutxi egin dugu Valladolid nola jokatzen duen ikusteko. Lehen Mailako talde bat da, eta urte on bat egin ari da. Errealistak gara eta badakigu alde handia dagoela talde batetik bestera, baino beste gauza batzuekin egingo diogu aurre».

Ilusioa da taldeko kideek Valladolideko erabiliko dutena. Horrela esan zuen Ander Avellaneda entrenatzaileak: «Lehen Mailako talde baten aurka jokatu dugu, eta noski, teknikoki eta fisikoki maila handiagoa dute. Hori bai, ilusioan ez digute irabaziko. Ruben Garciak, taldeko kapitainetako batek, ideia horri heldu zion: «Motibatuta gaude, eta zergatik ez, partida on bat eginda hurrengo errondara igarotzeko aukera izan genezake. Entrenatzaileak esan duen moduan, ilusioagatik ez gaituzte irabaziko. Dena ematera aterako gara». Iñigo Eraña futbol arloko lehendakariak azaldu zuenez, zuzendari-tzatik «ilusio handiz» bizitzen ari dira ere partida eta prestaketa guztia. «Guretzako partida historikoa da. Ez dakigu noiz jokatu dugun berriro Lehen Mailako talde baten aurka partida ofizial batean, eta gozatu nahi dugu. Helburu nagusia guk eta zaleek gozatzeko da».



Oroigarria banatu zitzaion munduko txapelketetan parte hartutako xare jokalariei zein Ametsa Pilota Elkarteari. ATARIA

Beste ehun urte betetzeko

Joxi Lopetegi xarelari irurarrak Funosasekin batera Iparraldeko ligako finalera sailkatzea lortu du

Imanol Garcia Landa Irura

Irurara xarea iritsi zela 100 urte bete dira aurrean eta hainbat ekitaldi egin dituzte mendeurrena ospatzeko. Tartean, omenaldia egin diete munduko txapelketetan aritu diren xarelarietara eta Ametsa pilota elkarteari. Bestetik, egun ikusi daitekeen xare jokorik onena hartu zuen Ametsa trinketeak, Iparraldeko lehen mailako ligaren finalerdiak jokatzen baitziren larunbatean. Gainera, Joxi Lopetegi herritarrek Mikel Funosasekin batera finalerako txartela lortu zuen.

Lopetegi-Funosas bikoteak De Paredes-Etxebeste bikoteari 40-27 irabazi zion. Beste finalerdian, Driole-Sistiague bikoak lortu zuen finalera pasatzeko Harispe-Karrikaburu bikoteari 40-34 irabazita.

Espero baino errazago irabazi zuten partida Lopetegik eta Fu-

nosasek. «Bagenekien atzean lana egin behar genuela, eta Etxebesteren egunaren arabera izango zela partida. Egundak txarra bazuen partida erraz dominatuko genuela uste genuen», esan zuen Lopetegik. Funosasek gaineratu zuenez, «huts asko izan dira partidaren, eta gero horrelako partidetan erritmoan sartzea zaila da. Partida ez da oso polita izan, baino tanto batzuk ikusgarriak izan dira. Joxik esan bezala, giltza atzean genuen, aurrelari-pilota kentzea zen gakoa». Bestalde, Funosasek azaldu zuen Irurako trinketean jokatzea ez daudela ohituta, eta Etxebeste hori ere nabaritu zuela. Driole eta Sistiagueren aurka datorren larunbatean jokatu dute finala, Senperen. «Finala zaila izango da. Gaur baino askoz hobe jokatzea behar dugu», esan zuen Funosasek.

Lehen aldian izan da Iparraldeko lehen mailako ligaren partida ofizialak jokatu direla Iruran. Lopetegik azaldu zuen «gustura» aritu dela herriko trinketean: «Gustatzen zaigu jende askoren aurrean jokatzea, eta partida herrian izanik, oso gustura nago».

OMENALDIA

Larunbatean bertan, Irurako Udalak munduko txapelketetan parte hartu duten xare jokalariei irurarreko zein Ametsa pilota elkarteari oroigarria banatu zien. Aukera berezia izan zen xareak eta Irurak historian zehar izan duten lotura irudikatzen.

Ondorengoak izan ziren oroigarria jaso zutenak: Juanito Olano, Martxel Olano, Joxe Gabarain, Martin Agirrezabalaga, Gregorio Amezttoy, Julian Larriaga, Josetxo Olano, Eugenio Arrieta, Mikel Uzkudun, Iñaki Mercader, Iñax Iturbe, Ramon Anton, Manolo Molina, Jose Antonio Morcuende, Juanjo Sainz, Jose Luis Larrarte, Juantxo Larrarte, Aitor Artola, Joxi Lopetegi, Josu Olano, Lander Artola, Andoni Lizaso, David Vinuesa, Jordi Lajas, Urtzi Urkola, Ugaitz Mendizabal, Erik Iñurrita, Axier Gutierrez, Unai Sarasola, Julen Apeztegia eta Ametsa pilota elkarteak.

Ekitaldiei amaiera herri afariarekin eta erromeriarekin eman zioten, frontoian. Afaltzeko 165 pertsona inguru elkartu ziren.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



ASTEARTEA, 2019KO ABENDUAK 17
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko
gizarte
eragileak

ASTEARTEA 17

AGENDA

Deialdiak

Berastegi. Oinez Berastegi, plazatik abiatuta, 16:00etan. Ondoren, merienda.

Zizurkil. Mestiza elkarte mexikar artistiko soziokulturalaren eskutik ipuin kontaketa euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez Iriarte etxean, 17:30ean.

Alegia. Aniztasun afektibo-sexuala gurasoentzako tailerra LH eta DBHko ikasleen gurasoentzat, 18:00etan, kultur etxean.

Amasa-Villabona. Loatzo musika eskolaren Eguberrietako emanaldia 18:30ean, Gurea antzokia.

Irura. Loatzoren Eguberrietako emanaldia 18:30ean, elizan.

Altzo. XXIII. Olentzerotan Jakin-Minez: Pape Niang-en *Hasiera berribat* liburuaren aurkezpena, 19:00etan, Batzarremuñon.

Anoeta. Ikastolako batzar orokorra; lehen deialdia 19:00etan eta bigarre-na 19:30ean.

Ibarra. Urtarrilaren 30erako Karta Sozialak deitu duen Greba Orokorra dela eta batzordea osatzeko bilera 19:00etan, Txontxon.

Amasa-Villabona. Urtarrilaren 30erako Greba Orokorra dela eta batzordea osatzeko bilera 19:00etan, erabilera anitzeko gelan.

Tolosa. Benito Lertxundiren kontzertua 20:30ean, Leidor antzokian.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde

16:30. Elkarriketap (Jakoba Erre-kondo)

17:30/21:30 Gaurkoan Tolosalde

22:15 Leihotik begira (Alkiza)

22:45 Zer jan

23:30 Gaurkoan Tolosalde

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza.

12:00. Entzuteko jaioak. Musika.

16:00. Zebabidea. Magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Gure Txokotik. Elkarriketak.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Giro makurra. Fronte batek eta ipar-mendebaldeko haizeak giro euritsu eta hotza utziko digute. Gauean lasaitzera egingo du. Tenperatura ez da 10 gradutik pasako eta arratsaldean hoztera egingo du, elur-maila 1.100-1.200 metroan utziz.



Bihar. Giro lasaia bueltan. Hego-haizeak zakar joko du, batez ere, arratsaldean eta horrekin termometroak gorago katu-ko dira. Erdi eta goi-mailako hodei dezente izango diren arren, giro lasai eta ateriazko izango dugu.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. Cecilia Bronte, Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amartz auzoa, 9. 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Jan Tolosaldea Bideo Laburren Lehiaketak badiu saridunak; zortzi lan aurkeztu dira

Erredakzioa Tolosa

Tolomendik eta TOLOSALDEKO ATARIA-k elkarlanean antolatutako bideo laburren lehiaketako sari banaketa hartu zuen Tolosako Topic aretoak. Guztira zortzi lan aurkeztu ziren Jan Tolosaldea Bideo Laburren Lehiaketara, eta gustura azaldu da Iker Karrera Tolomendiko arduradun teknikoa. «Lan txukunak jaso ditugu eta guztiak ikusita nabarmenduko nuke gazte horiek etorkizuneko erosle edota kontsumitzaile izanda sektoreak hausnarketa egin beharko duela. Etorkizunean non kokatu behar duten aztertu beharko du».

ATARIA eta Tolomendiko hainbat kidek osatu zuten epaimahaia eta hiru irizpide izan zituzten kontuan: sormena, mezua eta lanketa. Sari banaketa ekitaldian Iker Karrerak berak hartu zuen hi-



Saridunak Topic aretoko oholtzan. IRATISAIR

tza lehenik eta Jan Tolosaldea proiektuaren nondik norakoen berri eman zuen. Sariak banatzeko ardura Tolomendiko Joseba Altuna lehendakariak eta Josune Malkorra lehendakari ohiak izan zuten. Horiek horrela, DBH 1-2 mailan Elene Bidaurre, Inge Goe-naga, Inge Iturbe, Izaro Orkaiztegi, Martina Auzmendi, Maddi Gurrutxaga eta Intza Elizalde osatutako taldeak irabazi zuen. Kide guztiek Zumardia elkarteak eskaintako urteko bazkidetza eta bi ikastarotako matrikula jaso zituzten. DBH 3-4 mailan bi sari eman ziren. Bigarren saria Unax Agina-

ga, Ibai Vaquero, Ibiur Etcheberria eta Mikel Toledok osatutako taldeak jaso zuen. Hain zuzen ere, kide guztientzat Zumardiako urteko bazkidetza eta ikastaro batean matrikula. Eta bigarren saria Maddi Jauregi, Ainhoa Altuna, Mara Arruti, Ione Maiza eta Oier Gastesik osatutako taldeak eskuratu zuen. Kide guztiek Bizi Biziki enpresak eskaintako abenturaz betetako asteburu pasa jaso zuten. Publikoaren saria ere banatu zen, eta hain justu DBH 1-2 mailako irabazleek jaso zuten hori ere, otar eder bat eta ustiatetza bisita jasoz.



1 BILBOKO ARTE EDERRETAKO

MUSEOA
Bi laguntzako bina sarrera



www.museobilbao.com/eu • BILBO
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

harpidedun izateak badu saria zozketa

2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi laguntzako bina sarrera



Anoeta pasealekua, 24 • DONOSTIA • 943-46 44 04
www.eltxuri.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 EMARIAK liburua

Hiru ale



943-844 432 •
kalaka@kalaka.eus
www.kalaka.eus/denda/
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu **www.ataria.eus** webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.